

KLINIK APP

AURKIBIDEA

SARRERA.....

- GURE APLIKAZIO AURRERA ERAMATEKO PAUSUAK
STARTINNOVA ARABERA

1. IDEIA.....

- Aukeratutako ideia
- Aplikazioaren helburua

2. BALORAZIO PROPOSAMENA.....

- Aho hortzen osasunaren ikuspegi integrala
- Hezkuntza, prebentzioa eta higiene-ohiturak
- Klinikaren sarbidea eta proiektuaren ikuspegia

3. MERKATUEN SEGMENTAZIOA.....

- Haurrak
- Desgaitasun duten pertsonak
- Nagusiak
- Pertsona aktibo kirolari dagokionez

4. FUNTSEZKO ELKARTEA.....

- Hortz klinika eta kate odontologikoa
- Dentisten elkarte ofizialak eta elkarte profesionalak
- Ikastetxeak
- Desgaitasuna duten pertsona elkarteak
- Garapen teknologikoaren enpresak eta software
- Erloju adimenduen enpresak
- Mapen eta geolokalizazioaren enpresak

5. IRABAZI ITURRIA.....
6. KANALAK.....
 - Ezagutza
 - Erabilera
 - Jarraipena
 - Gomendioak
7. BEZEROAREKIKO HARREMANAK.....
 - Paziente eta aplikazio arteko erlazioa
 - Klinika eta aplikazioaren arteko harremana
 - Pazientea eta klinikaren arteko harremana aplikazio barruan
8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK.....
 - Baliabide teknologikoak
 - Baliabide materialak
 - Giza baliabideak
 - Baliabide juridikoak eta antolakuntzakoak
 - Ondorioa
9. FUNTSEZKO JARDUERAK.....
 - Produziozko jarduerak
 - Arazoak konpontzeko jarduera
 - Plataformako edo sareko jarduerak
10. KOSTUEN EGITURA.....
 - Kostu finkoak
 - Kostu aldakorak
 - Zabalkunde ekonomikoa
11. AGURRA.....

PARTAIDEAK

Goretti Ceña Perdiz

Adrian Ramon Oquiñena

Amaia Aginaga Otxoa

Olatz Jiménez de Aberasturi Cantero

Aroa Campo Perez

GURE APLIKAZIOA AURRERA ERAMATEKO PAUSUAK STARTINNOVA ARABERA

IDEIA

Gure inguruan dauden beharrak ikusita gure ideia garatzen hasi ginen. Lehenengo eta behin ideien zaparrada egin genuen:

- Eskuila elektriko bat egitea
- Zerbitzu bat eskaintzea aho osasunari buruz
- Eskuila biodegradablea bat non 3 hilabete pasata landatu dezakezu eta landare bat loratuko zen
- Erloju edo pultsera moduko bat sortzea abisatzen dizuna noiz garbitu behar dituzu hortzaginak, hau gehiago begira zailtasunak dituzten pertsonentzako
- Aplikazio bat egitea non zure inguruan dauden klinikak ikusi ahal dituzun eta zein tratamendu eskaintze dute. Baita zure tratamenduen erregistroa eukiko du.

Gure inspirazio iturriak:

Gure inguruan oinarritu gara, hortaz ikusi dugu aho osasunari buruzko informazio gutxi dagoela eta jendeak ardura gutxi ematen diola aho osasunari.

Gainera beste proiektu batean gaude buru belarri eta han ikusi dugu, pertsona helduetan protesi buruzko informazio gutxi zekitela (nola jarri , nola garbitu..etb) eta haien aho ohiturak ez ziren batere egokiak.

Lagunekin eta familiarekin hitz egitean, konturatu ginen jakin nahi zutela bere inguruan aurkitzen ziren klinikak eta zer tratamendu eskaintzen zuten. Hortik abiatuta, ideiak garatzen hasi ginen.

Teknologia garaian gaudela kontuan izanda, zerbait teknologikoa nahi genuela ohartu ginen, gaur egun erosoena delako.

Inguruneko aldaketa bat eratu nahi genuen, aho osasuna kontuan izanda, gure inguruko jendea eta Euskal mailan aho osasunaren garrantzia sabaltzeko.

Kirola augean dagoela ikusita eta kirola gure zaletasun bat dela kontuan izanda, kirola eta aho osasunaren lotura bilatuko dugu.

AUKERATUTAKO IDEIA

Guzti hau kontuan hartuta eta idea txaparrada ikusita idea garatuko dugu. Lehenago aipatutako hainbat ideiak batu egin ditugu, **aplikazio bat sortzeko**.

Hona hemen gure aplikazioaren lehen azalpena.

APLIKAZIOAREN HELBURUA

Hasteko, gure **helburua** da gure aplikazioa, **Klinik App**, klinikei saltzea zerbitzuen truke, hau da, pazienteak **kliniken informazioari** esker, gure aplikazioan daudenak, klinikara **hurbiltzeko erraztasun** gehiago izango dute. Pertsona batek gure aplikazioa deskargatzen duenean eta gure komunitatearen parte izan nahi badu hainbat **baimen** onartu behar ditu aplikazioak pertsona horren datuak erabili ahal izateko, datu horiek bere onerako erabiliko dira beti eta haien babesa bermatuko da momentu guztietan. Klinik App deskargatu ondoren zuri buruzko hainbat galdera egingo dizu: izena, abizenak, adina, sexua, korreoa, telefonoa, helbidea, aurrekari pertsonalak, gaixotasunen bat baduzu, izandako tratamendu dentalak (betetzeak, endodontziak...)... informazioa hau baliogarria izango da erabiltzailearen usuarioa egiteko.

Aplikazioan pazientearen datu guztiak egongo dira: erradiografiak, historia klinikoa, anamnesia, fakturak, aurrekontuak... Horrela, pazienteak bere **informazio pertsonal guztiaren jabe** izango da, hala nola, zein kliniketara joan den eta noiz izan den azken eguna, datuak, bizitzan zehar izan dituen tratamenduak, honek pazienteari askatasun handia emango dio.

Modu honetan, pazienteak uneoro izango du bere datu kliniko guztien askatasun osoa, eta, horrela, aukeratu ahal izango du zein klinikara joan daitekeen, pazientearen tratamenduaren edo gustuaren arabera, bere informazio pertsona guztia eskura baitu.

Gainera, aplikazio horri esker, pazienteek **tratamenduaren** datu guztiak eta **aurrekontuak** jaso ahal izango dituzte **pdf formatuan**, aplikazioaren atal batean espezifikoki agertuko dira.

Gure aplikazioa edozein **mugikorretan** eta **erlojuetan** aurkituko da eta hau **dohainik** deskargatzeko egongo da. Gure aplikazioa hainbat atal edukiko ditu horien artean: pertsona bakoitzaren ubikazioaren arabera **mapa** bat agertuko zaio erabiltzaileari, bere inguruko klinikak eta zein tratamendu eskaintzen dituzte azaltzen. Honek, aukera emango dio nahi duen klinikara joateko, behar duen tratamenduaren arabera. Gainera, ubikazio horren atal bertan, klinika bat sakatuz gero, klinika horren informazio guztia aurkituko duzu: langileak, egiten dituzten tratamenduak, balorazioak, prezioak, espezialitateak, argazkiak...

Aplikazio horren bidez, **pazientea** eta **klinika** etengabeko **kontaktuan** egongo dira, sor daitezkeen zalantzak erraztuz, eta, horrela, langileak eta pazienteak hurbilago egongo dira.

Beste atal batean, klinikaren **ordutegia** agertuko da baita zure **hitzorduaren** eguna, orduan eta egin beharreko **tratamendu**.

Hona hemen adibidea bat:

Aritz Algorta Martinez → Abenduaren 13an 18:00tan → Garbiketa

Honez gain, aplikazioan aho osasunari buruzko **informazioa gehigarri** jarriko dugu, erabiltzailentzako erabilgarria izan ahal dena. Modu honetan, informazioa izanez gero, hainbat gaixotasun prebenitu ahalko ditugu eta aho osasun ohitura egokiak bermatuko ditugu. Atal honetan hainbat **bideo** eta **informazioa** egongo da, hala nola, nola garbitu hortzak, ohitura egokiak, nola pasatu haria, kolutorien erabilera, zein motako eskuilak erabili... honek erabiltzaileei erraztasuna emango die aho osasun egokia izaten eta klinikako langileei lana erraztuko die.

Klinik App, **mugikorrak** zein **erlojuan** deskargatzeko aukera agertuko da, biztanle guztia eskuragarri izateko. Gure aplikazioan Klinik-a atal bat egongo, bertan hortzak garbitzeko gomendatutako denbora adieraziko da, erabiltzaileek hortzak garbitzeko denbora egokia jarraitu dezaten.

Haurrei begira **panpin** bat agertuko da pantailan eta haginak garbitzerakoan pantaila ikutzean, 2 minutuko erlojua agertuko da, beraz, hortzak 2 minutu garbitzen egon behar dira panpina eta musika ikusten eta entzuten duten bitartean. Panpina haurra bezala **haginak modu egokian garbitzen** hasiko da eta panpina amaitzen duenean haurrak ere amaitu beharko du, horrela umeen aho garbitasuna hobea sustatuko dugu. Amaitzean, panpina

agurtuko du umea eta egutegian erregistratuta geratuko da haginak garbitu dituela. Panpina aukeratzeko eta personalizatzeko aukera egongo da. Hortzak garbitu ezean zure panpinaren “ratxa” apurtuko da eta panpina haserretuko da. Honek ere erabilgarria izan daiteke, desgaitasunaren bat duten pertsonentzako edo hortzak garbitzeko zailtasunaren bat duten pertsonentzako.

Aukera hau nahiz eta umeentzako pentsatuta egon, edonor erabil dezakete, bai mugikorrean bai erlojuan. Hori bai, **nork erabiliko duen espezifikatu** behar da hasiera batean, batez ere umeak izatekotan haien **segurtasuna bermatzeko** eta aplikazioa **mugatuta** egoteko, modu honetan, ez dugu mugikorren erabilera sustatzen umeetan eta haienbabesa bermatzen dugu. Mugikor berdinean haur bat eta heldu batek erabiltzen baldin badute, saio desberdinak izango ditu bakoitza, bere izena eta panpinarekin, pertsona bakoitzaren datuak ordenatu eta banatuta egiteko.

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure baliozko proposamenaren oinarria aho osasunari garrantzia eta ikusgarritasuna ematea da.

Horretarako, aho osasunaren arloan orain arte ikusi ez den ikuspegi integrala eskaintzen duen **aplikazio bat sortzea** proposatzen dugu, prebentzioa, jarraipena eta arreta profesionalerako sarbidea aplikazio bakarrean batuz.

AHO HORTZEN OSASUNAREN IKUSPEGI INTEGRALA

Gure aplikazioa beste proposamenetatik bereizten da, izan ere, ez delako ohikoa erabiltzaileak bere aho tratamendu guztiak **modu antolatuan erregistratuta** edukitzea: non egin diren, noiz, zer tratamendu mota izan diren eta zein material erabili diren. Informazio hori guztia eskuragarri izateak pazienteari bere **aho osasunaren kontrol handiagoa** ematen dio eta, aldi berean, profesionalekin komunikazioa errazten du.

HEZKUNTZA, PREBENTZIOA ETA HIGIENE OHITURAK

Era berean, ez dugu ikusi beste aplikaziorik **hortzak nola garbitu** behar diren modu bisual eta didaktikoan azaltzen duenik, eta aldi berean garbiketaren iraupena kontrolatzen duenik. Gure aplikazioak, gainera, informazio hori **egutegi** batean erregistratzen du, erabiltzaileak bere ohiturak aztertu eta jarraipena egin ahal izateko. Horrek, aho higie egokiak sendotzen laguntzen du, batez ere haur eta pertsona zaurgarrien artean. Gainera, prebentzio moduan gure aplikazioan atal bat izango dugu, non **informazio gehigarria** edukiko dugu. Bertan, honako edukiak aurkitu ahal izango dira: nola garbitu hortzak, ohitura egokia, haria nola pasatu, erabilitako teknikak, kolutorioaren erabilera, ahoko gaixotasunak... honek etorkizunean aho arazoak izatea saihestu eta informazio egokia izatea bermatzen du.

KLINIKAREN SARBIDEA ETA PROIEKTUAREN IKUSPEGIA

Beste balio bereizgarri garrantzitsu bat da aplikazioak **klinika guztiak mapa interaktibo** batean erakusten dituela, bakoitzak eskaintzen dituen tratamenduekin batera. Horrez gain, erabiltzaileak aukera izango du **mezu zuzena** bidaltzeko lehen hitzordua eskatzeko, prozesua errastuz eta osasun zerbitzuetara sarbidea hobetuz. Horrela, **prebentzioa** eta **arreta profesionala** modu naturalean lotzen dira. Atal honetan, aipatutakoaz gain klinika

horren informazio guztia agertuko da, hala nola, langileak, egiten dituzten tratamenduak, argazkiak... besteak beste, erabiltzaileak ahalik eta informazio gehin izateko eta nahi duen klinika aukera ahal izateko.

Aipatzekoa da, halaber, aplikazio honek **kliniken eta pazienteen** arteko **harreman jarraia** sustatzen duela. Gaur egun, harreman hori askotan une puntualetara mugatzen da; gure proposamenarekin, ordea, komunikazioa etengabea izango da, konfiantza handiagoa sortuz eta tratamenduen jarraipen hobea ahalbidetuz.

Azkenik, gure proiektuaren ikuspegia argia da: kalitateari lehentasuna ematea kantitateari edo prezioari baino gehiago. Gure helburu nagusia ez da erabiltzaile kopuru handiena lortzea, baizik eta benetan aho osasuna hobetzea, hezkuntzaren, prebentzioaren eta arreta pertsonalizatuaren bidez. Horrek balio kualitatibo handiagoa eskaintzen dio erabiltzaileari, eta epe luzera, gizarte osoaren osasunean eragin positiboa du.

MERKATUEN SEGMENTAZIOA

Sortuko dugun **aplikazioa gizartearen aho osasuna hobetzea du helburu**. Nahiz eta aho osasunaren arloa oso garrantzitsua izan, gizartean ohitura desegokiak egoten dira.

Ekintza hauek albondorio ikaragarriak ekartzen dituzte baina gaur egungo gizartea ez dio honen garrantzia ematen. Pertsonak bere ahoari buruz kezkatzen hasten dira ikusten dutenean estekikoki itxusia dela.

Beraz, aho osasunaren garrantzia ezarri eta zabalduko dugu gure aplikazioari esker.

Aplikazio honen bitartez gizartean aurkitzen ditugun pertsona talde desberdineetara bideratuta egongo da.

Alde batetik, haurrentzako, txikitatik aho ohitura egokiak izatea etorkizunean arazoak saihestuko dituelako. Besteetik, desgaitasun duten pertsonentzako ere egokituko dugu aplikazioa, pertsona hauek batzuetan zailtasun gehio dituztelako higiene egokia mantentzeko, beraz, aplikazioaren erabileraren bitartez higiene egokia bermatuko dugu. Nagusiak ere arlo honetan laguntza behar dutela ikusi dugu, hau dela eta, aplikazioa dituen atalak lagungarriak izan dira: tratamenduen informazioa, fakturak...

Jarraituz, kirolariak eta pertsona aktiboak ere lekua izango dute gure aplikazioan, nola eragiten du aho osasuna kirolan aztertuko dugulako.

HAURRAK

Bizitzako lehenengo urteetan garai garrantzitsuena izaten da **ohiturak** bizitza osoan zehar mantentzeko eta ikasteko, funtsezkoa delako beraien ongizate fisiko, soziala eta emozionala mantentzeko. Gure produktua, umeentzako ere zuzenduta egongo da, aplikazio barruan, panpin interaktibo bat eukiko duelako eta aplikazio barruan jarraibideak egongo dira; hortzak eskuilatzeko jarraibideak jasotzen dituen.

Panpina haurra bezala hortzak garbituko ditu, denbora tarte batean (2 minutu) mugitzen eta musika jotzen duen bitartean. Modu honetan haurrak nola garbitzen dire hortzak modu **bisual** batean ikusiko du eta gainera behar den denbora egongo da hortzak garbitzen.

Horrez gain aplikazioa aipatutakoaren erregistro bat eramango du, heldu batek zuzenduta, izan ere, umea adingabeko denez heldu baten laguntzaz erabili behar du aplikazioa. Aplikazioa aukera izango du saioa bat baino gehiago irekitzeko norberaren datuak ordenatuta egoteko, horretan ere umeentzako saioa espezifiko bate egongo da, murriztuta

dagoena, bertan ere, hitzorduak apuntatuta izango dituzte eta hortz klinikekin lotuta egongo da, umeen hitzorduak, tratamenduak... gogoratzeko.

DESGAITASUN DUEN PERTSONA

Desgaitasuna duten pertsonentzako, gure aplikazioa herramienta oso baliagarria izango da, erakusten dielako era **bisual** eta **interaktibo** batean nola eskuiatu hortzak, ze material erabili eta zenbat denbora iraun behar duten. Honek eragingo du eskuiatzeko ordua izatea **jolas** baten modukoa. Honez gain, **kiniken informazioa** dagoen atalean jarriko dugu ze klinikak dauden **adaptatuta** desgaitasun espezifiko batzuetara dueten pertsonentzako, adibidez, klinika batzuk laguntza gehiago ematen die mugikortasun motaren bat duten pertsonen, besaulki bereziekin edo adibidez gurpil-aulkian dauden pertsonak hor bertan egin dezakete tratamendu batzuk. Horretaz gain, aplikazioa adaptatu daiteke pertsona bakoitzaren beharretara, hau da, aplikazioaren letren tamaina aldatu ahal da eta funtzio baten bitartez hitzez azaldu ahal dizu leku bakoitzean dagoen informazioa, modu honetan aplikazioa hau pertsona guztien beharretara moldatua egongo da.

NAGUSIAK

Gur aplikazioaren beste erabiltzaile talde garrantzitsu bat nagusiak dira. Adinarekin batera, aho osasunarekin lotutako **arazoak areagotzen** dira: hortz galera, protesien erabilera, gaixotasun periodontalak, aho lehortasuna (xerostomia) edo tratamendu luze eta jarraituak, besteak beste. Hala ere, ikusi dugu pertsona nagusi askok **informazio gutxi** dutela beren aho osasunari buruz eta, askotan, zailtasunak dituztela tratamenduen jarraipena egiteko edo informazio guztia antolatuta izateko.

Klinik App-ek nagusien behar horiei erantzun zuzena ematen die, aplikazio sinple, argi eta erabilerraza eskainiz. Aplikazioaren bidez, nagusiek aukera izango dute beren tratamendu guztiak leku bakarrean gordetzeko: historia klinikoa, erradiografiak, aurrekontuak, fakturak eta hurrengo hitzorduak. Horrek segurtasun handiagoa ematen die eta informazioa galtzeko beldurra saihesten du.

Gainera, aplikazioak **gogorarazpen** sistema bat izango du, hitzorduen eguna eta ordua ez ahazteko, baita hortzak garbitzeko edo aho higieine ohiturak mantentzeko abisuak jasotzeko ere. Funtzionalitate hau bereziki erabilgarria da memoria arazo txikiak dituzten pertsonentzat edo eguneroko errutinetan laguntza behar dutenentzat.

Bestalde, nagusiek askotan zailtasunak izaten dituzte teknologia berriekin, horregatik, aplikazioa interfaze sinplearekin diseinatuta egongo da, letra handiekin, botoi argiekin eta erabilera intuitiboarekin. Halaber, aukera egongo da senide edo zaintzaile batek aplikazioa kudeatzeko baimena izateko, modu honetan informazioa partekatu eta jarraipena errazteko.

Azkenik, Klinik App-ek nagusien bizi kalitatea hobetzea du helburu, aho osasuna zaintzea erraztuz, informazioa eskuragarri jarritz eta klinikekin komunikazioa hobetuz.

PERTSONA AKTIBOA KIROLARI DAGOKIONEZ

Kirola bere augean dagoela ikusita, gure produktua eskainiko du, kirola eta aho osasunari buruzko informazioa, jada hau ez da oso ezaguna eta asko eragin dezake kirolari baten errendimenduan.

Gure aplikazioa **erloju digitaletan** eskainiko da, hura kirolari gehienek erabiltzen dutena da, beraz bezero ohiko bat izango da.

Hau sortzean, badakigu eskeintzen ditugun zerbitzuekin eta informazioarekin pertsona askoren kirol errendimendua handituko dela.

Kirola eta aho osasuna oso harreman estua dute nahiz eta batzuetan oso argi ez ikusi. Aho infekzioak lesio muskularrak izateko aukera handiagoa ematen dute, baita kontzentrazioan eta loaren kalitatean eragin handia dute. Kirolari askok aho arnasa dute honek eragiten du txantxarra eta bestelako gaixotasunak garatzea ahoan. Baita maiz edari energetikoak hartzen dituzte hauek azukre beteak, ondorioz txantxarrak garatzeko arrisku handia ematen dute. Egiaztatuta dago aho osasuna ondo badago muskulu eta artikulazioak berrezkuratze azkarragoa dutela. Hau ikusita kirolari asko animatuko dira gure aplikazioa frogatzera eta gehiago jakitera, beraz bezero aktibo bat izango da.

FUNTSEZKO ELKARTEAK

HORTZ KLINIKAK ETA KATE ODONTOLOGIKOAK

Hortz klinikak proiektuaren funtsezko bazkide garrantzitsuenetako bat izango dira. Eginkizun nagusia tratamenduei, erabilitako materialei eta hitzorduen eskuragarritasunari buruzko **eduki erreal** eta eguneratua ematea izango da. Horiei esker, aplikazioak mapa fidagarri bat erakutsi dezake hurbileko klinikekin eta eskaintzen dituzten zerbitzuekin.

Gainera, haren lankidetzak negozio eredua optimizatzea ahalbidetzen du, izan ere, klinikek ikusgarritasuna eta pazienteak erakartzeko bide berri bat lortzen dute, eta aplikazioak, berriz, balio praktikoa eta sinesgarritasuna.

DENTISTEN ELKARTE OFIZIALAK ETA ELKARTE PROFESIONALAK

Haiekin lan egitea gure aplikazioari **kredebilitate** gehiago emanten dio, izan ere, aho hortzen higieneari eta prebentzioari buruzko hezkuntza edukiak irizpide profesional eta zientifikoetan oinarrituta daudela bermatzeko balio dutelako.

Horiei esker, nabarmen **murritzten** da osasun eta **lege arriskua**, app-ak erakunde ofizialen babesa izanten duelako. Gainera, klinika eta profesionalen sare zabal baterako sarbidea errazten digu, eta horrek proiektua azkarrago eta sendoago eskalatzea ahalbidetzen du.

IKASTETXEAK

Ikastetxeak funtsezkoak izango dira proiektuaren prebentzio eta hezkuntza alderdian. Haren lankidetzari esker, aplikazioa tresna gisa sartu ahal da, txiki txikitatik ahoko higiene **ohitura zuzenak** irakasteko. Hau ez umeei behartuko baizik eta aplikazio honen aukera erakustiko da, haien erabili nahiz izanez gero aukera izateko. Uste dugulako ikastetxetan, txikiak direnek aho osasun egokia bermatu behar dela, izan ere, eginten ez den zerbait ikusi dugulako, beraz, aplikazioari esker hau bermatu eta zabaltzeko nahi dugu, handitzen direnean aho osasun ohitura egokiak finkatuta izateko.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ELKARTEAK

Beraien zeregina interfazearen **diseinuan**, aplikazio-aren **erabileran** eta interakzioen **sinpletasunean** aholkatzea izango da, haien arlo honetan gu baino gehiago dakitelako eta laguntza eskaini ahal digutelako.

Horiekin lankidetzan aritzeak bazterketa digitalaren arriskua murriztea ahalbidetzen du. Gainera, enpresak berez izango ez lukeen ezagutza espezifikoa ematen dute, hainbat gaitasunetara egokitutako app bat sortzen lagunduz.

GARAPEN TEKNOLOGIKOAREN ENPRESAK ETA SOFTWARE

Enpresa teknologikoak **funtsezko bazkideak** izango dira aplikazioa garatzeko eta mantentzeko. Plataforma anitzeko app bat (mugikorra eta erloju adimenduna) sortzeko behar den **ezagutza tekniko**a ematen dute, segurua eta erabiltzeko erraza.

Aliantza horiei esker, **arrisku teknikoak murrizten** dira, baliabideak optimizatzen dira eta proiektuaren eskalagarritasuna bermatzen da.

ERLOJU ADIMENDUEN ENPRESAK

Smartwatch-en fabrikatzaileak edo banatzaileak, proiektuaren ezaugarri bereizgarrienetako bat ustiatzeko aukera ematen dutelako: **erlojua erabiltzea haurrentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako, edo erlojua erabiltzea mugikorra baino aukeratzen duena.**

Enpresa horiek funtsezko teknologia eskaintzen dute, eta proba pilotuetan, integrazio espezifikoetan edo kanpaina bateratuetan lagun dezakete. Haien parte hartzeak lagundu egiten du aplikazioa beste batzuetatik bereizten eta berrikuntza teknologikoaren bidez eredua optimizatzen.

MAPEN ETA GEOLOKALIZAZIOAREN ENPRESAK

Mapa eta kokapen plataformak funtsezko bazkideak dira aplikazioak behar bezala funtziona dezan. Hurbileko **klinikak** zehatz mehatz **erakusteko** eta erabiltzaileari esperientzia arina eskaintzeko aukera ematen dute.

Horiei esker, funtsezko baliabide bat lortzen da (geolokalizazio fidagarria), aplikazioaren funtzionaltasun nagusia optimizatzen da eta erakutsitako informazioan akatsak izateko arriskua murrizten da.

IRABAZI ITURRIAK

Gure aplikazioarekin dirua ateratzeko hainbat jarduera eramango ditugu aurrera. Alde batetik gure arloarekin lotura dituzten **iragarkiak** ezarriko ditugu, harremana ditugun elkarteekin. Bestetik, gure aplikazioan ubikazioaren arabera hiriburu horretan dauden klinikak **mapa** batean agertuko dira. Klinika horiek **ehuneko diru** bat eman beharko digute gure mapan agertzeko, gu honen truke klinika hori gomendatuko diegu pazienteei.

Hona hemen ideia horien azalpena zehatzagoa,

Hasteko gure aplikazioak ahoko osasunarekin lotutako **publizitate estrategikoaren** eta **marken babesaren** bidez lortuko du dirua, **iragarkiak** erabiltzaileentzat garrantzitsuak, erabilgarriak eta ez inbaditzaileak erabiliz.

Ahoko osasunareki lotutako produktuak eta zerbitzuetan inplementatuko ditugu iragarkiak, hala nola: hortzetako pastak, eskuilak, ahoko irakuzketak, klinika odontologikoak, hortz aseguruak eta ahoko higieneari espezializatutako markak. Horrela, **publizitatea aplikaziaren helburuarekin lerrokatuta egongo** da eta benetako balioa emango die gure erabiltzaileei.

Gainera, aliantzak egingo ditugu aho osasunen markeekin, eta haien produktuak sustatu ahal izango dituzte gure aplikazioan. Modu honetan aukera emango digu doako aplikazioari eusteko, etengabeko hobekuntzak finantzatzeko eta, aldi berean, erabiltzaileen artean ahoa zaintzeko ohitura osasungarriak sustatzeko.

Bestalde, gure aplikazioak **mapa interaktibo** batean erakutsiko ditu hiriburu bakoitzean erabilgarri dauden klinikak, eta erabiltzailearen kokapena erabiliko du hurbileko emaitza garrantzitsuak eskaintzeko. Mapan agertu nahi duten **klinikek komisio ehuneko** bat ordaindu beharko dute, gure aplikazioan sartzearen truke. Ondorioz, aplikazioak klinika horiek lehenetsiko eta gomendatuko dizkie pazienteei, eta mapan nabarmenduko ditu, ikusgarritasun hobeari, informazio xehatuaren (zerbitzuak, ordutegiak, balorazioak) eta emaitzetan lehenetsuneko posizioaren bidez.

Horrela, erabiltzaileek konfiantza handiagoz aukeratu ahal izango dituzte, eta klinikek, berriz, esposizio handiagoa eta paziente berriak erakartzea lortuko dute.

Eredu horrek **bi aldeei egiten die mesede**, alde batetik, pazienteak erraz sartzen dira hurbileko klinika fidagarrietan, beste alde batetik, kliniken ikusgaitasuna eta bezero bolumena handitu egiten dira, gainera plataformak diru sarrera iraunkorrak lortzen ditu.

KANAL

Kanalek enpresa edo **proiektu** batek bere **balio proposamena bezeroengana nola eramaten** duen azaltzen dute. Hau da, **kanalek** definitzen dute **erabiltzaileek** nola **ezagutzen** duten gure **aplikazioa**, nola **eskuratzen** duten **deskargen, gomendioen** edo bestelako **bideen** bidez, nola **erabiltzen** duten **egunerokoan** eta nola **mantentzen** den **harremana** haiekin **denboran zehar**. **Kanalak** ezinbestekoak dira, izan ere, **ideia ona** izatea ez da nahikoa: funtsezkoa da ideia hori **jendearengana iristea** eta **erabiltzaileek** modu **erraz** eta **erosoan** erabiltzea. Gure **proiektuaren** kasuan, **kanalek** ahalbidetuko dute **aho osasuna** sustatzeko sortu dugun **aplikazioa publiko desberdinengana** iristea, hala nola, **haurrengana, nagusiengana, desgaitasuna** duten **pertsonengana** eta **kirolariengana**.

Gure **proiektuko kanalak aho osasuna** eta **hortz ohiturak** hobetzeko sortutako **aplikazioan** eta **pultsera, erloju adimendunean edo mugikorretan** oinarritzen dira, eta **erabiltzailearen ibilbidea** kontuan hartuta hainbat **fasetan** banatu ditugu.

EZAGUTZA

Lehen **fasea, ezagutza eta informazioari** dagokio. Fase honetan, **erabiltzaileek** gure **aplikazioa** eta eskaintzen duen **zerbitzua** ezagutzen dute. Horretarako, **sare sozialak** erabiliko dira, hala nola **Instagram** eta **TikTok**, **aho osasunari** buruzko **informazioa** zabaltzeko, **hortzak ondo garbitzearen garrantzia** azaltzeko eta **aplikazioaren funtzionamendua** erakusteko. **Kanal hauek** bereziki erabilgarriak izango dira **gurasoentzat, gazteentzat** eta **kirolarientzat**. Horrez gain, **aplikazioa App Store** eta **Play Store** plataformetan egongo da **eskuragarri, azalpen argiekin, irudiekin** eta **erabiltzaileen balorazioekin**. Bestalde, **hortz klinikek** ere **zeregin garrantzitsua** izango dute, **aplikazioa** **pazienteei aho osasuna hobetzeko tresna** gisa aurkeztuz.

ERABILERA

Bigarren fasea eskuratze eta erabilerari lotuta dago. Une honetan, **erabiltzaileak** **aplikazioa** erabiltzen hasten dira beren **egunerokoan**. **Aplikazioa mugikorretan, erloju adimendunetan** eta **pultsera digitaletan** erabilgarri egongo da, eta horrek **erabilera erraztuko** du bereziki **haurren, nagusien** eta **desgaitasuna** duten **pertsonen** kasuan. **Gailu horien bidez, erabiltzaileek jakinarazpenak** eta **abisuak** jasoko dituzte, **bibrazioen** edo **mezuen bidez hortzak noiz garbitu** gogorarazteko. Gainera, **elementu interaktiboak**

ere **txertatuko** dira, eta haurren kasuan, panpin interaktibo baten bidez hortzak garbitzeko ohitura modu ludiko eta motibagarrian sustatuko da.

JARRAIPENA

Hirugarren faseak **harremana eta jarraipena** lantzen ditu. Aplikazioa erabiltzen den bitartean, kanalek erabiltzailearekiko harreman jarraitua ahalbidetuko dute. Aplikazio barruko komunikazioaren bidez, **pazienteek eta hortz klinikek harreman zuzena** izango dute, zalantzak argitzeko edo hitzorduak gogorarazteko. Era berean, mezuen, jakinarazpenen eta dokumentuen bidez, erabiltzaileek tratamenduei buruzko informazioa, aurrekontuak eta **fakturak pdf formatuan** jasoko dituzte **aplikazioaren barruan**.

GOMENDIOAK

Azkenik, gomendio eta fideltasun kanalek proiektuaren hazkundera indartuko dute. Ahoz ahoko komunikazioari esker, aplikazioarekin pozik dauden erabiltzaileek beste pertsona batzuei gomendatuko diete, batez ere familia ingurunean eta hurbileko harremanetan. Horrez gain, App Store eta Play Store plataformetan utzitako balorazio eta iritziek konfiantza sortuko dute erabiltzaile berriengan.

Ondorio gisa, kanal desberdin hauen bidez, gure aplikazioa modu eraginkorrean iritsiko da erabiltzaileengana, aho osasuna sustatuz eta ohitura osasungarriak eguneroko bizitzan txertatuz. Kanalek aukera ematen digute aplikazioa ezagutarazteaz gain, erabiltzaileekin harreman jarraitua, hurbila eta fidagarria izateko.

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Aplikazioa bai **bezeroekin** eta bai **klunikarekin** izango duen **harremana funtsezko puntua** izango da. **Komunikaziorik gabe**, ezinezkoa da **pazienteen**, **kliniken** eta **plataformaren** artean **harreman erraz** eta **eraginkor** bat sortzea.

Klinik App sortu dugu, **aplikazioa erabiltzen duten pertsonentzako informazio guztia** modu **eskuragarrian** izateko, baita **laguntza jasotzeko aukera** izateko ere. **Aplikazioaren bitartez**, **paziente bakoitzaren informazio pertsonala eta kliniko** modu **erraz** batean edukiko dute, **seguruago sentitzeko** eta **konfiantza handiagoa** izateko.

PAZIENTEA ETA APLIKAZIOAREN ARTEKO ERLAZIOA

Lehen aipatu dugun bezala, **aplikazio hau oso erabilgarria** da **pazienteek** beren **historial kliniko** eta **klunikaren informazioa eskuragarri** izateko eta **kudeatzeko** modu **erraz** batean.

Erabiltzaileek perfil bat edukiko dute eta honen bidez **klinikek pazientearekiko erlazioa** duen **informazioari sarbidea** emango diote, hala nola **historia kliniko** (erradiografiak, **datu pertsonalak**, **egindako tratamenduak**...).

Zalantzarik izanez gero, **aplikazio barruan atal bat** egongo da **zalantzak galdetzeko**, eta **aplikazioan lan egiten duten langileak ahalik eta azkarren** jarriko dira **harremanetan aplikazioarekin lotutako edozein gairi buruzko laguntza eskaintzeko**: **erregistroarekin**, **aplikazioaren erabilerarekin**, **dokumentu medikoak bistaratzearekin** edo **jakinarazpenen konfigurazioarekin lotutako gorabeherak** argituz.

Horrela, **aplikazioak** ziurtatzen du **erabiltzaileak hasieratik** behar duen **laguntza** jasotzen duela eta **modu erraz**, **autonomo** eta **seguruan** erabiltzen duela.

KLINIKA ETA APLIKAZIOAREN ARTEKO HARREMANA

Beste aldetik, **Klinik App-ek erlazio zuzena** mantenduko du **aplikazioa erosten duten klinikekin**. **Sarbidea desberdina** izango da **kliniketako langileentzat** eta **pazienteentzat**.

Aplikazioak **klinikari** aukera emango dio bere **informazioa kudeatzeko**, hala nola **ordutegiak**, **tratamenduak** eta **klinikaren kokapena**, eta **beharrezko dokumentazioa** **igotzeko**, **pazientearen arabera**, betiere **datuen babesa** eta **pribatutasuna** errespetatuz.

Zalantzak argitzeko **atal bat** ere egongo da, **pazienteen kasuan** dagoenaren antzekoa, **aplikazioarekin lotutako** edozein **kontu** argitzeko, horrela **eraginkortasuna** eta **zerbitzu hobia** bermatzeko.

PAZIENTEAREN ETA KLINIKAREN ARTEKO HARREMANA APLIKAZIO BARRUAN

Amaitzeko, **pazientearen** eta **klinikaren** arteko **komunikazioa** azalduko dugu. **Aplikazioaren bidez**, **pazienteek** nahi duten **klinikarekin harremanetan jartzeko aukera** izango dute, **mapa baten laguntzarekin errazago aukeratzeko**. Aukeraketa hori egiteko, **gure aplikazioarekin lotuta dauden klinikak** hautatu beharko dira.

Erabiltzaileek kontsultak egiteko, **tratamenduei buruzko informazioa** eskatzeko, **klinika eskuragarri dagoen jakiteko** (ordutegiei esker) edo **bere historia klinikoarekin lotutako zalantzak** argitzeko aukera izango dute.

Komunikazioa bi noranzkoko izango da, izan ere, **pazienteek** eta **klinikek mezuak bidali eta jaso** ahal izango dituzte **ingurune seguru** baten barruan. Ingurune hori **babestuta** egongo da **datuen babesaren legearen** bitartez. Horrez gain, **informazioa galtzea saihestuko** da eta **arreta azkarra** eskainiko da.

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak proiektua **martxan jartzeko** eta **behar bezala aurrera eramateko ezinbestekoak** diren **elementuak** dira. Baliabide horiei esker, gure **balio proposamena** eskaini ahal izango dugu eta, aldi berean, **aplikazioaren funtzionamendu egokia eta jarraitua** bermatuko dugu. Gure **proiektuaren helburua aho osasuna sustatzea** denez, **aplikazio baten eta pultsera edo erloju adimendun baten bidez, hainbat baliabide mota** behar ditugu.

Lehenik eta behin, **baliabide teknologikoak funtsezkoak** dira. Horien artean dago **mugikorretarako eta erloju adimendunetarako aplikazio informatikoa**, zeina **garatu, mantendu eta etengabe eguneratu** beharko den. Horrez gain, **pultsera eta erloju adimendunen sistema teknologikoa** beharrezkoa da **hortzak garbitzeko abisuak** bidali ahal izateko. Era berean, **software egokiak eta plataforma digitalak** erabili behar dira **datuen kudeaketa eraginkorra** izan dadin eta **aplikazioaren segurtasuna** bermatzeko. **Azkenik, zerbitzariak eta datu biltegiak sistema ezinbestekoak** dira **pazienteen informazio pertsonala eta klinikoa modu seguruan** gordetzeko.

Bestalde, **baliabide materialek** ere **garrantzi handia** dute **proiektuaren garapenean**. **Pultserak sortzeko material birziklatuak** erabiliko dira, **ingurumenarekiko errespetua** sustatzeko asmoz. Horrez gain, **gailu fisikoak** beharko dira, hala nola **pultserak, erloju adimendunak eta horien funtzionamendurako beharrezko osagai teknikoak**. Halaber, **material didaktikoa** ere garatuko da, **kartelak, liburuxkak eta azalpen materiala** barne, bai **kliniketarako** bai **ikastetxeetarako, aho higiearen garrantzia modu ulergarrian** zabaltzeko.

Giza baliabideei dagokienez, **hainbat profesionalen lankidetzak** beharrezkoa izango da. **Hortz profesionalek, odontologoek eta hortz higienistek, aplikazioan eskainitako edukien baliozkotasuna eta zehaztasuna** bermatuko dute. **Informatikariek eta aplikazio garatzaileek aplikazioa sortu, mantendu eta eguneratzeaz** arduratuko dira. Horrez gain, **hezkuntza eta osasun arloko adituek aplikazioa haurrei, helduei eta desgaitasuna duten pertsonari** egokitzen lagunduko dute. **Azkenik, komunikazio eta marketin taldeak proiektua ezagutarazteko eta gizartean zabaltzeko** lana egingo du.

Azkenik, baliabide juridikoak eta antolakuntzakoak ere **ezinbestekoak** dira. **Datuen babeserako sistema sendoa** behar da **pazienteen informazio pertsonala eta klinikoa** behar bezala babesteko. Era berean, **aplikazioa merkaturatu eta osasun arloan erabiltzeko beharrezkoak** diren **baimen eta lizentziak** eskuratu beharko dira. Gainera,

hortz-klinikekin hitzarmenak sinatzea **garrantzitsua** izango da **aplikazioa erabiltzeko** eta haren **hedapena errazteko**.

Ondorio gisa, funtsezko baliabide horiei esker, gure aplikazioa modu seguruan, eraginkorrean eta inklusiboan garatu ahal izango da, helburu nagusi gisa aho osasuna hobetzea eta ohitura osasungarriak sustatzea izanik.

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa osasun digitaleko aplikazio bat da, erabiltzaileei beren hortz klinikarekin harreman zuzena izateko aukera ematen diena. Aplikazioaren bidez, erabiltzaileek beren datu medikoak, hitzorduak eta hortz higiearen jarraipena modu erraz eta seguruan kudea ditzakete. Horrez gain, aplikazioak mapa interaktibo bat eskaintzen du, non inguruko hortz klinikak ikusi eta nahi den klinika aukeratzeko aukera dagoen.

Aplikazioak bere balio proposamena eskaini ahal izateko, bezeroengana iristeko, bezeroekiko harremanak mantentzeko eta diru sarrerak sortzeko, honako funtsezko jarduerak egiten ditu:

Gure enpresa osasun digitaleko aplikazio bat da ondo azaldu dugun moduan, erabiltzaileei beren hortz klinikarekin harreman zuzena izateko aukera ematen diena. Aplikazioaren bidez, erabiltzaileek beren datu medikoak, hitzorduak eta hortz higiearen jarraipena modu erraz eta seguruan kudea ditzakete. Horrez gain, aplikazioak mapa interaktibo bat eskaintzen du, non inguruko hortz klinika guztiak ikusteko eta nahi den klinika aukeratzeko.

Aplikazioak bere balorezko proposamena eskaini ahal izateko, bezeroengana iritsi dadin, bezeroekiko harremanak mantendu ditzan eta diru sarrerak sortu ditzan, honako funtsezko jarduerak egiten ditu:

PRODUKZIOZKO JARDUERAK

Produktu digitalaren sorrerarekin eta hobekuntzarekin lotutako jarduerak dira. Hau da, aplikazioaren diseinua eta garapen teknologikoa (ordutegia, mapak, datu medikoak...) Aplikazioaren etengabeko eguneraketa, funtzionalitate berriak gehituz eta erabil erraztasuna hobetuz. Azkenik sistema informatikoa mantentzea eta aplikazioaren egonkortasuna bermatzea.

ARAZOAK KONPONTZEKO JARDUERA

Erabiltzaileek eta klinikek izan ditzazketen behar eta arazoei erantzutea bideratutako jarduerak dira: Erabiltzaileen zalantzak eta arazo teknikoak konpontzea, kliniken eta aplikazioaren arteko koordinazioa bermatzea (hitzorduen kudeaketa eta datuen eguneratzea) eta datuen pribatutasuna eta segurtasuna zaintzea, informazio sentikorra baita.

PLATAFORMAKO EDO SAREKO JARDUERAK

Aplikazioa plataforma digital gisa funtzionatzeko beharrezkoak diren jarduerak dira: Erabiltzailearen eta hartz kliniken arteko harremana eta interakzioa kudeatzea. Klinikaren sare bat sortu eta mantendu, eskaintza zabala bermatzeko. Plataformaren errendimendua eta erabilera aztertzea, zerbitzua hobetzeko.

Laburbilduz funtsezko jarduerak hauek aplikazioari balioa sortzeko dira, erabiltzaileei zerbitzu erabilgarria eskaintzeko balio dute.

KOSTUEN EGITURA

Ahoko osasunari buruzko aplikazio baten negozio eredua aurrera ateratzeko, haren sorreran, mantentze lanetan eta funtzionamenduan esku hartzen duten **kostu guztiak** hartu behar dira kontuan. Gastu multzo horri kostuen egitura esaten zaio.

KOSTU FINKOAK

Lehenik eta behin, **kostu finkoak** ditugu, hau da, **egonkor mantentzen** direnak, aplikazioa erabiltzen duten erabiltzaileen kopurua edozein dela ere. Kasu horretan, kostu finkoen barruan sartzen dira **aplikazioaren hasierako garapena, interfazearen diseinua, proiektuaren plangintza, iragarkiak, kliniken ubikazioa eta ahoko osasunari buruzko informazio edukia** sortzea, hala nola higiene aholkuak, gaixotasunen prebentzioa eta ohitura osasungarriak. Kostu horien barruan sartzen dira, halaber, **denda digitaletan aplikazioa argitaratzea, software lizentziak ordaintzea eta datuak babestearekin eta osasun araudiarekin lotutako lege gastuak**. Kostu horiek hasieratik hartu behar dira bere gain, nahiz eta aplikazioak erabiltzaile gutxi izan.

KOSTU ALDAKORRAK

Bestalde, **kostu aldakorrak** daude, erabiltzaileek aplikazioaz egiten duten erabileraren arabera. Informazioa kontsultatzen dutenean edo hurbileko hortz klinikak bilatzen dituzten pertsonen kopuruak gora egin ahala, gora egiten dute ere **zerbitzariekin, datuak biltegitratzearekin eta mantentze lan teknikoekin lotutako gastuek**. Kostu aldakorrak dira, hala nola, aplikazioa ezagutzeko marketin digitaleko ekintzak, eta erabiltzaileak izandako zalantzarik edo arazoak jakinez gero. Aplikazioak zenbat eta **erabiltzaile gehiago** izan, orduan eta **handiagoak** izango dira **kostu** horiek.

Aplikazioak eskala ekonomiak izan ditzake izan ere, behin bakarrik garatzen baitira ahoko osasunari eta klinikak lokalizatzeko sistemari buruzko informazio edukia eta erabiltzaile askok erabil ditzakete, beraz, honek ez du kostuak nabarmen handitu, behin bakarrik inbertitzen duzuelako eta etorkizuenan bakarrik berritu behar duzu.

ZABALKUNDE EKONOMIKOA

Azkenik, zabalkunde edo hedapen ekonomikoari esker, **baliabide** berberak **berrerabili** daitezke zerbitzu edo produktu gehiago eskaintzeko. Adibidez, **plataforma bera erabil daiteke** **atal berriak sartzeko, hala nola, gomendio pertsonalizatuak, haurrentzako bertsioak edo hortz klinikekiko akordioak**. Gainera, aplikaziorako sortutako edukia web orri batean edo sare sozialetan berrerabil daiteke, proiektuaren irismena handituz, kostu gehigarri handirik sortu gabe.

Aipatzekoa da gure kostuen egituren barruan **ez dela lokalik** edo leku zehatz bat sartuko lan egiteko, izan ere, lan guztia gure ordengailuen bidez egindo dugu **etxean**, eta taldeekiden artean bilera bat egin behar dugunean lekua momentu horretan aukeratzen dugu, adibidez: etxeren bat, liburutegia, leku publikoren bat... Modu honetan **dirua aurrezten** dugu uste dugulako gure proiekturako, klinik app, leku finko bat ez dela beharrezkoa.

AGURRA

Gure proiektua ondo garatu ondoren, atal guztiak ondo finkatu eta errepasatu behar dira. Horretarako hona hemen atal guztiak laburbilduta puntuz puntu.

BALIO PROPOSAMENA

Lehenengoa balio proposamena da, burutik pasatu zaigun lehenengo galdera hau :” zer balio eskaintzen dugu ?” honi erantzutean gure proiektuaren balio proposamena zein den finkatu dugu.

Hau da eskainiko duguna, pazienteak bere **datu kliniko guztiak** aplikazio bakarrean izatea: erradiografiak, historia klinikoa, anamnesia, fakturak, aurrekontuak, tratamenduak... Klinika batetik bestera mugitu nahi ezker arazorik ez izateko proposamenarekin egin dugu hau.

Baita gardentasuna eta kontrola izatea, pazienteak bere datuen jabea eta ez klinikak.

Honi lotuta kliniken arteko askatasuna, pazienteak klinika alda dezake informazioa galdu gabe eurak direlako beraren informazioaren jabeak.

Klinika eta pazientearekiko komunikazio zuzena eta jarraitua, arazo bat sortuko balitz edota galderen bat, aukera izateko beti galdetzeko gure profesionalei.

Lehen aipatu dugun moduan dokumentuen jabe pazienteak izango dira beraz aurrekontuak, tratamenduak... pazienteak beti eskura izango ditu PDF formatuan .

Hau dena pazientei eskeintzen diegu baina klinikak baita euki ditugu kontuan eta formato honen bitartez, hau bermatzen dugu, pazientearekin harreman hobea, informazioaren antolaketa eta fideltasuna.

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioa burutik pasatutakoan gure buruari egin diogun lehengo galdera hau izan da “ Norentzako sortzen dugu balioa?” beraz hortik abiatuta garatu dugu.

Gure bezero nagusiak, hau da, ordainduko digutenak klinikak dira, beraien klinikako funtzionamenduan gure aplikazioa sartzeko, hau beraiei asko lagunduko die paziente gehiako eukitzeko, klinika antolatzen eta pazienteak behar duten arreta guztia emanez. Beste alde batetik, beste atal batean ondo azaldu dugun moduan, gure aplikazioak publizitatea izango du, beraz hortik diru iturriak izango ditugu. Publizitatea hortzaginez osasunari buruzkoa izango da noski. Baina hau ez da gure helburu nagusia, gure aplikazioa hobetzen joateko diru iturria baizik.

Gure helburu nagusia eta norentzak sortzen dugun balioa zehazki gure erabiltzaileak dira, hau da, aplikazioa erabiliko duten pertsonak.

Gure erabiltzaileak klinikako pazienteak izango dira edo klinika baten bila dauden pertsonak. Erabiltzaile hauek edozein motatako pertsonak izan daitezke, gure aplikazioa gauza asko eskaintzen dituelako, **Ideian** ondo azalduta dagoen moduan, beraz gizartean dauden pertsona guztiak erabiltzeko gai izateko eta beraien beharrak asetzeko pentsatuta dago.

Burutik pasatu zaigun bigarren galdera honako hau da “ Zein segmenturi zuzentzen gara?” Hasieran, klinika pribatu txiki eta ertainak beraien digitalizazioa hobetzeko proposamenarekin daudenak baina pazientei ere arreta eman behar genien, beraz, pazientei errestazun gehiago eukitzeko eta tratamendu luzeetan dauden pazienteak euki genituen abiapuntu moduan.

Oro har gure bezero nagusiak klinikako jabeak dira haiek baitira aplikazioa erosiko dutenak, gure aplikazioaren zerbitzuen truke.

FUNTSEZKO SOZINETATEAK

Hurrengo atalari erreparatuta gure aplikazioaren itunak egiteko arrazoi nagusiak aztertuko ditugu.

Ondo azaldu dugun moduan aplikazio hau, aho osasunarekin lotuta dago, beraz, itun asko euki behar dira kontuan.

Aho osasuneko aplikazio batek **lankidetzak**, **datu-babesa**, **lizentziak**, **zerbitzu-kontratuak** eta **erantzukizun mugak** jasotzen dituzten itunak behar ditu, batez ere osasunarekin lotuta dagoelako.

1. Lankidetzak itunak

Hortz klinika edo profesionalekin: eduki fidagarria sortzeko, hau da, ematen den informazioa eta prebentzioa fidagarria izateko (aholkuak, prebentzioa, tratamenduen azalpenak).

2. Datu babeserako akordioak

Erabiltzaileen **osasun datuekin** tratuko dugunez pribatutasun politika eta datuak tratatzeko hitzarmena (DPA) kontuan izan beharko ditugu eta gure pazienteak onartu beharko dituzte. European gaudenez beste lege bazuk betetzea derrigorrezkoa da DBEO/GDPR legea.

3. Lizentzia akordioak

Aplikazioan erabiltzen diren irudiak, bideoak, izena eta ikonoak patentatu behar izango dira. Baita software liburutegiak edo APIak Horien erabilera baimentzen duten akordioak behar dira.

4. Zerbitzu emateko kontratuak

Aplikazio Programatzaileekin, diseinatzaileekin edo marketin enpresekin egindako kontratuak. Mantentze eta eguneratze zerbitzuak zehazteko.

5. Mediku erantzukizunari buruzko oharra

Aplikazioak **ez duela ordezkatzeko profesional baten diagnostikoa** argi uzteko baldintzak.

6. Babesletza edo finantzaketa-itunak

Aseguru etxeekin, hortz produktuen enpresekin edo erakunde publikoekin. Diru laguntzak edo babes ekonomikoa jasotzeko.

7. Banaketa edo merkaturatze akordioak

App Store / Google Play baldintzak eta klinikekin edo erakundeekin aplikazioa zabaltzeko hitzarmenak.

DIRU SARRERAK

Gure kasuan, diru sarrerak modu **ez ohikoan** planteatzen ditugu, hau da, klinikak **aplikazioa erabili dezake** aplikazioan eskaintzen ditugun gauzen guztien truke. Etorkizunean: Harpidetza klinikentzat, Premium zerbitzuak eta Kudeaketa modulu aurreratuak klinikentzat aurrera eraman nahi ditugu.

KANALAK

Kanalak astertutakoan nola iritsiko garen bezeroengana burutik pasatu zitzagun, beraz, hortan aritu ginen. Aurrez aurre arituko gara klinikekin baita aplikazioaren bidez eta noski wedgune bidez. Honela gure aplikazioaren berri emango dugu.

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroak, lehen azaldu dugun moduan, klinikak dira batez ere eta beraiekin harremanetan egoteko telefono bat izango dugu, arazoren bat baldin badago, arazoaren berri izateko eta konpondu ahal izateko. Harremana personalizatua izango da .

Kliniketako pazienteekin ere harremanetan egongo gara. Komunikazio jarraitua aplikazioaren bidez, informazio argia, eskuragarria eta konfiantzan oinarritutako harremana eskeiniko dugu.

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozio ereduak funtziona dezan beharrezkoak diren aktibo nagusiak deskribatu ditugu. Hala nola: Aplikazio teknologikoa, Zerbitzari seguruak (datu medikoak) Software garatzaileak, Ezagutza teknikoa eta legala, Klinikien datu sistemekin integrazioa eta Marka eta konfiantza. Funtsezkoa baliabideen atalean ondo azalduta dagoena.

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko baliabideak garatzerakoan, ikusi dugu zer egin behar duen enpresa batek bere negozio ereduak funtziona dezan. Hemen aipatuko ditugu gure enpresak egingo duena, negozioa ondo funtzionatu dezan,

- Aplikazioaren garapena eta mantentzea
- Datuen segurtasuna bermatzea
- Klinikien integrazioa
- Pazienteen eta klinikien laguntza
- Legezko baldintzak betetzea
- Hobekuntza eta eguneraketak

KOSTUEN EGITURA

Kostuen egitura garatzerakoan kontuan hartu behar dugu kostu mota desberdinak daudela kostu finkoak, kostu aldakorak, eskala ekonomikoak eta zabalkunde edo hedadura ekonomikoak. Guk horrela sailkatu ditugu.

Kostu nagusiak: Diru gehien kenduko digutenak

- Kostu finkoak:
 - Garapena
 - Zerbitzariak
 - Langileak
- Kostu aldakorak:
 - Erabiltzaile kopuruaren arabera azpiegitura
- Eskala ekonomiak:
 - Zenbat eta klinika gehiago, orduan eta kostu txikiagoa erabiltzaile bakoitzeko
- Zabalkunde ekonomiak:
 - Etorkizunean beste osasun arlo batzuetara zabaltzea

KLINIK APLIKAZIOA

Hona hemen gure aplikazioaren ideia argazkietan,

1. SARRERA

KLINIKAPP

Klinikak

Datu pertsonalak

Informazioa gehigarria

Mapa interaktiboa

Hitzorduak

Blog

KLINIKAPP

Klinikak

Classes

Informazioa gehigarria

Hitzorduak

Blog

Bilatu zure klinika ideala

Hasi zure bidaia imbarre osasuntsuago eta distiratsuago baterantz KlinikApp bidez.



2. AURKITU AHAL DITUZUN ATALAK APLIKAZIOAN ZEHAR


Eragatu nola hobetu dezakeen KlinikAppetik zure hortz esperientzia

App honetan hortz-
kliniketarako hitzorduak egin
ditzakezu, eta klinika guztiak
gertu non dauden ikusteko mapa
bat ere baduzu. Egutegi baten
atal bat ere badago, zure
hitzorduak idazteko. Txat zuzen
bat egin zure klinikarekin,
zalantzaren bat baduzu hitz
egiteko. Zure erradiografiak eta
fakturak ere izango dituzu, nahi
duzunean ikusteko. Bestalde,


duzunean ikusteko. Bestalde,
panpina bat egongo da hortzak
nola garbitu erakutsiko dizuna
eta bi minutu emango dizkizun.
Zenbat eta gehiago erabili,
orduan eta bolada-egun gehiago
izango dituzu, baina erabiltzeari
uzten badiozu, bolada galduko
duzu



3. APLIKAZIOAREN ATALAK



4. APLIKAZIOARI BURUZ



5. IRITZIAK ETA SARE SOZIALAK



Entzun gure
komunitatea daukana
esateko

"Nire beharretarako hartz-klinika aproposa aurkitzeko gai izan nintzen. Erreserba-prozesua oso erraza eta komenigarria izan zen. Oso gomendatua! "

Sara Garcia

EZ GALDU EZER

EZ GALDU EZER

Jaso itxazu eguneratzeak eta informazioa, zure hartz-esperientzia hobetzen jarraitzeko gurekin.

KLINIKAPP

Legeak

Pribatasun politikak

Baldintzak


Soziala

Instagram

Facebook

YouTube

TikTok



© 2035 by Sculpty. Powered and secured by XXX